



MANUEL LASARTE

**BERTSO  
MORDOXKA**

# BERTSO MORDOXKA

AUSPOA LIBURUTEGIA

**100**

---

### **COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa  
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J. Colegio  
de S. Ignacio. Ategorrieta. — San Sebastián.**

**ORDAINDU BEARRAK:**

Urte betekoa: 420 pezeta      Atzerrian: 560 pezeta  
Ongilleak: 700      "      Ale bakarra: 50      "

MANUEL LASARTE

BERTSO MORDOXKA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1970

© **Auspoa Liburutegia**  
**Tolosa (Guipuzcoa)**

**Depósito Legal. S. S. 650/70**  
**IZARRA - Peña y Goñi, 13**  
**San Sebastián-Septiembre 1970**

## A R K I B I D E A

Itzaurrea ... ..	9
Erriak buruz jasotako zenbait bertso ... ..	14
UZTAPIDE TA LASARTE: Zaldibia'n, 1969/ III/2 ... ..	19
<b>BINAKA, GAI LIBREAN.</b>	
Basarri ta Lasarte, Zaldibia'n, 1964 ... ..	69
Lazkao-Txiki ta Lasarte, Zumarraga'ko Agi- naga'n, 1968/XI/17 ... ..	80
Lazkao-Txiki ta Lasarte, Ormaiztegi'n, 1969/XI/30 ... ..	85
Uztapide ta Lasarte, Ereñozu'n, 1970/ VI/13 ... ..	90
<b>BINAKA, GAI EMANDA.</b>	
Euskera ta Euskalerria (Lazkano ta La- sarte), Gabiria'n, 1968/V/18 ... ..	107
Sermolaria ta gosetia, (Lazkao-Txiki ta Lasarte), Z u m a r r a g a ' k o Aginaga'n, 1968/XI/17 ... ..	111
Neska-mutillak, (Lazkao-Txiki ta Lasar- te), Zumarraga'ko Aginaga'n, 1968/ XI/17 ... ..	114
Aita-semeak, (Agirre ta Lasarte), Elizon- do'n, 1969/II/16 ... ..	117
Maizterra ta nagusia, (Lasarte ta Azpilla- ga), Elizondo'n, 1970/V/17 ... ..	121
Nekazaria ta pentsu-saltzalea, (Mattin ta Lasarte), Elizondo'n, 1970/V/17 ... ..	126

## BAKARKA, GAI EMANDA.

Kalea ala baserria? Gabiria'n, 1968/V/18	131
Senar mozkorari, Zumarraga'ko Agina- ga'n, 1968/XI/17 ... ..	133
Sagarra, Añorga'n, 1969/VII/18 ... ..	135
Izerdia, Ernani'n, 1969/VIII/9 ... ..	137
Xenpelar, Donostia'n, 1969/IX/21 ... ..	139
Doñuak ... ..	141

## ITZAURREA

Manuel Lasarte Arribillaga, Lasarte bertsolaria alegia, Naparroa'ko Leitza'n jaio zan, Franki baserrian, 1927 urteko Abenduaren 16'an.

Amabi urte zituala, Gipuzkoa'ko Aia'ra etorri zan bizi izatera, bere familiarekin batera.

Ta, Eibarren da abar lan egin ondoren, Orio'n lan egin eta bizi izan da urte askoan; gaur, berriz, Orio'n lan egin eta Zarautz'en bizi.

\* \* \*

Gazterik asi zan bertsotan. Ogei bat urterekin edozein plazatan kantatzen zuan. Geroztik or dabil erriz-erri kantu-lanean, ia-ia jairik utsegin gabe.

Liburu ontan jarri degun saio batean, eun da ogei ta amar bertso kantatzen dituzte Lasarte ta Uztapidek. Arratsalde bakar batean orrenbeste bertso; bere denbora guzian zenbat ote, beraz? Zen-



bat liburu osatuko genituzke, Lasarteren aotik sortu diran bertso guziak idatziko balira? Eunka ta eunka liburu, noski. Ez degu asko pentsatzen bertsolarien lana zenbaterañoa dan...

\* \* \*

Lasarteren doai bereziak asko dira nere ustez: neurriaren xuxentasuna; puntuaren zailtasuna; bertsoaren ezitia; euskeraren aberastasuna; gizonaren umildadea; ta abar ta abar.

Bañan irakurleak berak juzkatuko du zera oietzaz, Lasarteren bertsoak entzutez bere iritzia lendik egiña ez badu.

Ta au esaten ere ez nintzake bildur: Lasarte degu, nere ustetan, gaur eguneko bertsolaririk aundienetako bat, eta gizon dan aldetik, berriz, Euskalerra guziak maite duan gizona.

\* \* \*

Lasartek onela dio liburu ontako bertso batean:

    iñortxok ez du, ez, irakurtzen  
    Lasartek eskribiturik...

Ez baitu sekulan bertsorik paperean ezarri. Makiñatxo bat etorri omen zaio ori eskaturik, bañan alperrik... Orretarako ez dio barrenak laguntzen.

Orregatik magnetofonoaren bitartez egin da liburu au. Bertso-saio batzuk nere lagun batzuek zeuzkaten; gañerakoak neronek artu ditut.

Aritik paperera pasa ondoren, Lasarteri erakutsi dizkiogu, ondo kopiaturik ote zeuden galdetuaz. Ta, noizean bein, guk oker kopiatuak zuzen jarri ditu; baita magnetofonotik illun entzuten ziranak argitu ere.

Ori bera egin degu liburu ontan azaltzen diran beste bertsolari guziekin ere: Uztapide, Basarri, Lazkao-Txiki, Agirre, Mattin, Lazkano...

\* \* \*

Liburu ontako bertso-sail bakoitzaren asieran, zenbaki bana arkituko du irakurleak, orri-aldearen ertzean. Zenbaki orrek, bertso oien doñua liburu-bukarean zenbatgarren dagoan adierazten du. Guziak an bildu baititugu.

Doñuak magnetofonotik entzun da paperean ezartzeko lana, Manuel Yaben eta

Anbrosio Zatarain'ek egin dute. Milla esker.

Ez da oraindik sortu bertsolariak berdin kantatuko duten doñurik; ezta sortuko ere. Saio batean lau bertsolarik doñu bera kantatzen ari badira, bakoitzak bere gisa kantatuko du doñu ori. Orregatik, binaka kantatutako bertso-salletan, noren doñua artu? Lasarteren liburua dan ezkerre, Lasarterena artu degu beti, lagunarena alde bat utzirik.

Are geiago: bertsolari batek doñu bera bein baño geiagotan kantatzen badu, aldi batetik bestera aldaketaren bat edo beste sartuko du. Gerok ere badakigu ori egiten, uste gabean bada ere, doñu bat maiz kantatzean. Zer esanik ez bertsolariak, kantu-lanean doñuari arretarik ezin eman dioten gizonak baitira. Orregatik, sail bakoitzetik kantu aldetik obetotxo zegoan bertsoa aukeratu degu, doñua paperean ezartzeko.

Modu onetan, ogei doñu bildu dira. Ala ere, oraindik izango da bertsolariak iru-lau doñu besterik ez dakitela diotnik...

\* \* \*

Len ere esan deguna, Lasarteren libu-

ruak eunka egin ditezke. Orrenbesterekin esana dago, au ez dala egin zitekean libururik onena, ezta txarrena ere, liburu bat baizik. Erakusgarri bat, alegia, Lasarteren kantu-lana nolakoa dan.

A. Z.

## ERRIAK BURUZ JASOTAKO ZENBAIT BERTSO

Erriak, saio bat entzuten ari dala, bertso-rik onenak buruz ikasten ditu. Lengo bertsolari zarren aotik aorako bertsoak, guregana eldu diranak alegia, orrela jasoz izan oi dira. Lasarterenak ere badira ola artuak. Ona emen batzuk:

«Orain dijoan bertso au, Lasarterena, Zarautz'ko *Cinema'n*, San Isidro gau batez kantatua da. Basarri zuten gidari. 1967'garren urtean zala uste det. Basarrik au jarri zien asierako: Bertsolari bakoitzak esan bear zuen nungoa eta zein zan. Eta onela kantatu zuan Lasartek:

Nungua naizen jakitearren  
onera bildu zerate,  
Leitza'n sortua ta Oriyotarra  
orain esaten dirate;

(1)

len Aia'kua zala usten zuen  
askok Manuel Lasarte;  
ni zuen morroi nazute, jaunak,  
zeuek nai dezuten arte». (1)

\* \* \*

Lasarte gaixo xamar egon zan urdai-  
lletik. Operatu bearra izan zuten. Ura pa-  
sa ta gero, Uztapidek galdetu zion, bein  
batez, osasunez zer modu zebillen, eta La-  
sartek onela erantzun zion:

Ni nazu luzaruan (2)  
gaixo egondua,  
len gogorra nitzana  
orain bigundua;  
supritzeko izan da  
neretzat mundua,  
eskerrak izan dala  
zeñek lagundua. (2)

\* \* \*

Santo Tomas egun batean, Azpeitia'n,  
Lizaso, Lazkano, Lasarte ta ni giñan ber-

---

(1) Adlerazpena ta bertsoa: Patxi Larrañaga ber-  
tsolaria, Zarautz.

(2) Bertsoa ta doñua: Jose Luis Lekuona, Lexo-  
ti bertsolaria, Oiartzun.

tsotan. Ta, badakizu, argal xamarra egoten da ura, gizagajoa, ta asi giñan bat eta bestea, orduan bezela egunero jatea naikoa zukeala gizentzeko; biziosoa zalako etzala gizentzen, beste batek, eta ola; zerbait esan bearra izaten da ba. Eta ala erantzun zuan Lasartek:

\* Nere plakezaz ote zaudete (1)  
zuek iya saminduan?  
Zer kulpa daukat ni Jaungoikoak  
ola egin baninduan?  
Ez naiz bakarrik, geiago ere  
ikusten ditut munduan;  
d'arrazoietan luzitzen det nik  
gizon aundien onduan. (3)

\* \* \*

Au ez dakit, ba, zeñi kantatuko zion  
bañan umeak goseak zeuzkala ari omen  
zitzaion beste bat, laguna edo bertso-  
laria; ta onela erantzun zion Lasartek:

Ai, nik ez ditut ezertan artzen (1)  
laguna, zure esanak,  
bat bezelatsu maitatzen ditu  
amar d'amabi dauzkanak;

---

(3) Adierazpena ta bertsoa: Jose Agirre bertso-  
laria, Oanda, Azpeitia.

zuk ez dakizu oaindik zer diran  
norbere umean laztanak,  
gauz oien berri ez du jakiten  
guraso egin eztanak. (4)

---

(4) Adierazpena ta bertsoa: Jose Agirre bertso-  
laria, Oanda, Azpeitia.



# **UZTAPIDE TA LASARTE**

**Zaldibia'n 1969/III/2'an**

## UZTAPIDE TA LASARTE

Gaztelumendi, Zaldibia'ko mendi bat da; ta orain amabi bat urte ezkeroztik, bertako lagun-arte bat ere bai. Lagun-arte berriari izena jarri asmotan asi ziranean, mendiarena erantsi zioten.

Lagun-arte ortako gizonak, Gaztelumenditarrak alegia, bertso-zale purrukatuak dira; ta zale ez-ezik, bertsoa zer dan ondo dakitenak ere bai.

Urtero-urtero, bazkari edo aparti pare bat egiten dute, Gaztelumenditar guziak bildurik eta bertsolari pare bat ekarri-rik.

Bañan ez dira saio labur batekin asetzen; saio luzea nai dute, ta bertsolariak lana galanki egin bear izaten dute.

Saio au, 1969/III/2'an egin zan. Lasarte ta Uztapide izan ziran. Ta eun da ogei ta amar bat bertso kantatu zituzten.

Magnetofonoz bertsoak artu zituana, Martin Ibarguren izan zan. Lagun onek arreba bat Alemania'n dauka; arrebak

magnetofon aundi bikain bat bialdu zion andik. Geroztik Martin orrek bere kontu dauka Gaztelumendi'ko bertso-saioak artzeko lana. Bai ongi ta garbi artu ere! Ta ala, bertsoak jasotzeko egokiera ez-ezik, berarekin lagun egiteko bide ere izan degu. Milla esker, beraz, gure lagun berri oni!

Kantu-lanean asi baño len, onela esan zieten Lasarte ta Uztapideri:

—Jendeak keja dauka zuekin: Bertso-tan oso-oso ederki egiten dezute, bañan beti alkar famatuaz. Gaur alkarrekin minberatuta ikusi nai zaituztegu, alkarri gaizki esaka!

Ta, orregatik, beren eztena derrior atarra bear izan zuten...

Zaldibia'ko saio ontan, bein bakarrik izan ezik, ez diete bertsolariak ez gairik eta ez punturik jartzen. Berak bere gisa kantatzen utzi zituzten.

Era ontako saioak, batean kimera-aldia izaten du, bestean bare-aldia; orain zintzoki ariko dira bertsolariak, eta urrena biurrikeritan; asieran agurra bear du saioak, bukarean despeira, ta tartean eten-aldi bat edo beste.

Gora-bera oiek danak oso ederki ikus-

ten dira saio ontan. Orregatik, emen oso-osorik argitaratzea erabaki degu.

Izan ere, orain arte txapelketak eta saio-pusketak maiz x a m a r argitaratu izan dira; bañan gai libreko saiorik ez, oso-osorik beintzat. Ta komeni dan gauza dala derizkiogu. Onako au izan dedilla, beraz, estrañakoa.

## I

*Uzt.:* Ni Oiartzun'en onuntz begira (3)  
esnatu nintzan goizian,  
Zaldibia'ko lagun maiteak  
ikusitzeko pozian;  
nola ez nekin beren berririk  
juan dan denbora luzian,  
arrazoi nuen gogoratzia  
jendia nola bizi'an.

*Las.:* Ni ere Jaunak bialdu nago  
zaldibitarrak zaintzera,  
maitatzen zaitut, *Gaztelu-mendi,*  
maitagarria ain zera;  
laztan eman ez ementxen nator  
aingeru baten antzera,  
lagun zar auek duten kaiola  
biotzez zorientzera.

*Uzt.:* Alkarte onen berri ematen  
ez da erreza itz biyan,  
orain zerbaitxo entzunagatik  
len nik ez bainekizkiyan;  
batzuk lañope biziagatik  
zuek beti eguzkiyan,  
urte askotan izan zaitezte  
*Gaztelu* onen azpiyan.

*Las.:* Jaungoikuak egin zuen mendirik  
oraindik ez da erori,  
*Gaztelu* ere txutikan dago,  
siñale ona da ori;  
gizon bat degu aipagarria,  
itza iritxi zait neri,  
txalo bizi bat jo dezaiogun  
Salaberria jaunari. (1)

*Uzt.:* Justo maitia ezagutzera  
nola nintzan etorria,  
aspalditikan bere entzueran  
nuen buruan jarria;  
gaur amar urte nolabait asi,  
gaur partxondegi berria,  
ortan meritu aundiña duna  
da Justo Salaberria.

---

(1) Justo Salaberria, *Gaztelu-mendi* elkarteari  
asieran eman ziona.

*Las.:* Amar urtean neke-lanari  
aurrera diote bultza,  
Salaberria etzan bakarrik,  
egin diote laguntza;  
ez pentsa gero lendakari au  
degunikan umezurtza,  
orren onduan ibili dana  
degu Ramon Irasturtza.

*Uzt.:* Bata bezela bestia izan  
liteke gizon azkarra,  
bestela olatu batek artuko  
zuben Zaldibi'n indarra;  
nik esan nai nun Justok piztua  
zala lenbizi su-garra,  
geroz izango zuan, bai, onek  
beste lagunen bearra.

*Las.:* Justo maiteak sua piztu zun  
emen amar urterako,  
motibo faltik etzan izango  
zuk ori esaterako;  
au da kaiola zoragarria  
erri txiki baterako,  
txoria banitz ni ez nitzake  
emendikan aterako.

*Uzt.:* Justo maitea, zu aitatu bear  
lendakari nola zeraden,  
aitortzen degu lagunak ere  
nola jatorrak diraden;  
mendian naiz-ta elurra egon  
emen beti dago lurmen,  
txori geienak babesen billa  
pozik sartzen dira emen.

*Las.:* Derrigor esan bearra dauka  
emen bakoitzak beria,  
erri guztia bat egiñikan  
auxen da gizalegia!  
Txoko maite au ikusten degu  
iñon parerik gabia,  
lengo zarra're polita zan da  
berria berriz obia.

*Uzt.:* Pozaz txoratzan gelditzen gera  
au ezagutu degunak,  
egun bat gizon egongo dira  
ta danak alkar-lagunak;  
urte guzian iza'itzazute  
gaur bezelako egunak,  
kafia artzian esango'itugu  
oaiñ esan ez ditugunak.

## II

*Las.:* Kantura nua berriro ere (4)  
 egiten dute galde ta,  
 len ere ola pasa ditugu  
 amaika arratsalde ta;  
 bertso batzuek kanta ditzagun  
 danak eskean daude ta,  
 auen gustua egin dezagun  
 gu ontarako gaude ta.

*Uzt.:* Zer poza eman diraken neri,  
 Lasarte lagun prestua,  
 nere biotza lasaitua dek  
 len bazeguen estua;  
 gizonak zerbait mogitu bear dik  
 egiñ ezkerro gastua,  
 saiatuko nauk ia egiten dan  
 lagun maite aben gustua.

*Las.:* Gure Uztapidek beti bezela  
 asera ederra eman du,  
 erantzun-naia baneukake nik  
 oraindik ez det berandu;  
 broma ederra jarri gentzake  
 alkar artuko bagendu,  
 oraintxen baño sasoi obean  
 iñoiz ez gera egondu.



*Uzt.:* Eztaukat penik lagun auekin  
zerbait tratatzen asiya,  
mai santu ontan izan baidegu  
komeni zaigun guziya;  
zer alkartasun ederra orren  
gañez degun ikusiya!  
Momentu abetxek luzatzen dute  
gizon zarraren biziya.

*Las.:* Beste bertso bat apal askua  
zure lengoaren truke  
iñortxok asko beartu gabe  
laixter moldatuko nuke;  
lenago ere zuk bazenduen  
zaldibitarren entzute,  
aurten portatzen baldin bazera  
berriz deituko dizute.

*Uzt.:* Berriz deituko baldin balute  
Uztapiden atsegiña!  
Orduan ere izango nuke  
zer da zertan itzegiña;  
alkartasuna nai det danakin  
da utzi txarrerako griña,  
geroko ere ez dator gaizki  
gaur gizonai on egiña.

*Las.:* Sei bat urtean banator onuntz  
zaldibitarren bitartez,  
Manuel, zuri deitzea ere  
ez dezu izango kaltez;  
bertso-zaleak ase bearra  
degu aspaldiko partez,  
erri polit au aztu ez dedin  
Uztapidez da Lasartez.

*Uzt.:* Sei urte ontan zuri deituak  
jakin nai nuke zein diran,  
nola neri're zaldibitarrak  
asko gustatzen zaizkiran;  
neri ez dirate bate deitu ta  
zuri sei aldiz segiran,  
gaurtik aurrera berak jakingo  
dute zeñi komeni dan.

*Las.:* Len ere erakutsiya zera  
bost olako giza-lege,  
arrazoiari erantzuteko  
emen arkitzen naiz trebe;  
zuk arrazoia eman dezu ta  
Lasarte egingo da jabe,  
beraz gaur ere etorri zera  
iñork abixatu gabe.

*Uzt.:* Ikusitzen det nola zeraden  
zu nere kontra jaikiya,  
eta gañera entzuna nago  
txit erantzun egokiya;  
arrazoi orri bertso onetan  
eman nai erabakiya:  
bildur al zera nik kendutzeko  
Zaldibi'ko parrokiya?

*Las.:* Soka luzea dago tartean,  
guzia ez dezu eten,  
Manuel zarra, gogoan artu  
nola erantzuten deten:  
nik lagun zarra nere onduan  
ikusi nai nuen aurten,  
Uztapideri abixatzeko  
neronek esan nioten.

*Uzt.:* Papelak egin giñuzen biak  
da ez nituzke nai erre,  
nik gaur esaten dizuten gauza  
esango dizut biyarr e;  
neri deitu edo bestiai deitu  
eztiyo ajola ezerre,  
sekulan deitzen ez badezu're  
len geran ainbat asarre.

*Las.:* Abixutxo bat emango dizu  
zuri Lasarte iyarrak:  
oraindik biok egun askotxo  
dauzkagu pasa biarrak;  
bertsuen bidez kontentu uzten  
ditugu zaldibitarrak,  
olako bromik ez du jarriko  
Andaluzi'ko kitarrak.

*Uzt.:* Ez gera egongo emen luzaro  
gauza ezin erabakiyan,  
oaiñ erantzungo dizut bertesua  
oso era egokiyan:  
gitarra etzala ununtzko ona  
lenago ere banekiyan,  
baña badu ark serbiziya  
bera sortu zan tokiyan.

*Las.:* Arrazoi dezu, bertsolariak  
bertakuak gera egiz,  
argatik beti askorentzako  
gogozkoak gera begiz;  
baño itz auek obeak dira  
txukun antzean da neurriz,  
oraingo aski izango degu  
ta geroxiago berriz.

*Uzt.:* Eman diguzun despeida ori  
nik ez det gaizki juzkatu,  
orain deskantsu pixka bat artu  
ta eztarriyak freskatu;  
saio batian ez genituzke  
nai lagun danak nazkatu,  
berriz gogua egindakuan  
bertso geiago eskatu.

### III

*Uzt.:* ..... (5)  
.....  
.....  
..... neronen zarrían; (2)  
al baldin bada saia gaitezen  
txit patxara ederrian,  
saio jator bat ia egiten dan  
alkate jaunén aurrian.

*Las.:* Maitatutzen det emen daguen  
pamili edo sendia,  
itzegiteko egokierak  
olaxe etortzen dia;  
oraiñ artean guazen martxan  
konforme dago jendia,  
beraz txalotu bear dezute  
Gregorio Garmendia.

---

(2) Magnetofonoa berandu jarri zuten martxan;  
orregatik dago utsune au emen.

*Uzt.:* Pixkat burua makurtu det nik  
ori etorri danean,  
lenago lasai ai banintzan e  
neronen bertso-lanean;  
eletrizista-kontuan dabil  
gizon au aridanean,  
eta usten det negoziyua  
daukala gaurko egunean.

*Las.:* Bigarren bertsoetik al zenduen  
negoziyo gorabera?  
Beste aldetik Garmendia'ri  
egin nai diot sarrera:  
arri aundi bat lertuko balitz  
Gaztelu-mendi'tik bera, (3)  
alkate jaunak jasoko luke,  
orretan seguru gera.

*Uzt.:* Alkate jauna, etzazu artu  
mundu onetan etsirik,  
batetik ezik beste batetik  
erten baileike bizirik;  
eletrizidade-kontu ortan  
gizon jatorra ikusirik,  
poztutzen naiz ni alkatetzatik  
ez baida irabazirik.

---

(3) Asieran esan bezela, Gaztelu-mendi Zaldibi'-  
ko mendi bat da, lagun-arteari izena eman diona.

*Las.:* Kolokatua zaude zu beraz  
negozio on batian,  
gizona sendo erabiltzia  
ez da erriaren kaltian;  
Salaberria degu emen buru  
juan dan amar bat urtian,  
emen arririk ez datorkigu  
ori bizi dan artian.

*Uzt.:* Alkate jaunen negoziyuak  
aitatu dira lenago,  
barkatu zazu baño esango  
dizut pixka bat geiago:  
gaur ondo zaude eta gero ere  
salbatutzia naiago,  
eguneko ogei irabaztia  
dotriñak ainduta dago...

*Las.:* Eletrizidade-langintza ortan  
ainbeste dira ibilik,  
ta disgustuak eraman ditu  
makiñatxo bat familik;  
peligrosua da lan ori ta,  
alkatia, egon ixilik:  
uste gabeen jarri zindezke  
alanbretikan txintxilik.

*Uzt.:* Autoridade baten aurrean  
eziñ onela itzegin,  
orrek kopeta beztutzen badu  
ez da izango atsegin;  
denda bikaña etxian eta  
jaboi-fabrikan lan egin,  
diru oriek gastatuzeko  
bear emendik aldegin.

*Las.:* Jaboi-fabrika martxan jarria  
eletrizidade-suan,  
nola dabillen esango dizut  
nere oraingo bertsuan;  
alkate jauna maite degu ta  
artu gentzake besuan,  
nai dezun dana kanta zaiozu  
zuk konfiantza osuan.

*Uzt.:* Badakizute buruz ez dala  
beintzat gizon elbarriya,  
oraiñ artian ongi dabill au  
ni bainago igarriya;  
artzai onaren mendian beti  
itxuran dabil erriya,  
berakiñ ezpadira kontentu  
jarri bezate berriya.



*Las.:* Aspalditxoko urte auetan  
ai gera zerbait ikasten,  
alkate jauna begi txarrekin  
Zaldibi'k ez du ikusten;  
ainbat esanda kategoriya  
guk ez dizugu itxusten,  
zeuk ez dakizu, Garmendia, zu  
zenbatek maite zaituzten.

*Uzt.:* Erri bateko alkate ez da  
egiten utsen peskisan,  
orrek agintze'u erriko etxean,  
bikariyuak elizan;  
oso zalla da gobernatutzen  
guztiyak nai duten gisan,  
gaurko egunean kargu oietan  
neronek ez det nai izan.

*Las.:* Izan niteke zitala baño  
oso izlari txukuna,  
bertso orrekiñ oraindik ere  
ez dezu bete eguna;  
zuk dadukazun eginkizuna  
da utsa eta astuna,  
karguan ezin liteke jarri  
eskolarikan eztuna.

*Uzt.:* Zure burua ikusitzen det  
nik gero eta ariñô,  
obe zenduan bertso ori zeure  
buruai bota baziño;  
nik eskolarik ez jakitia  
ez da izango estraño,  
jakin nai nuke zeorrek zenbat  
dakizun gaio nik baño.

*Las.:* Ni ez-jakiña beti izan naiz,  
izan ezazu gogotan,  
lenago ere gauz ori bera  
esana dizut prankotan;  
baño oraindik beste bertso bat  
badet erantzutekotan:  
naiko burua badaukazu zuk  
txit utsa izatekotan.

*Uzt.:* Amaika gauza burura etortzen  
dirade onelakuan,  
da orri ori gogoratutzen  
zaio beorren flakuan;  
atzenerako jarritzen nazu  
gauza uts baten lekuan;  
ori esan naiko zenduen zuk:  
illerik ez det buruan.

*Las.:* Ikusten degu gure bertsoak  
disputara datozena,  
eta jendiak ongi badaki  
ontarako gatozena;  
lenago ere ikusten naute  
argal samarra naizena,  
baño zuk dezun lepua ere  
eztago oso gizona.

*Uzt.:* Ikusten zaitut zu nola zauden  
toriatzeko idian,  
geiago esan nai banuke're  
jarritzen nazu bidian;  
ongi dakizu zuk eskallarak  
mundu ontan nola dian,  
lepo loriagua nuen nik  
zuk daukazun edadian.

*Las.:* Desgrazi batzuk gertatzen dira  
txit munduko izatian,  
konturatuko zera nola dan  
erantzuna esatian:  
aspalditxuan onela gabiltz,  
Manuel, biok batian,  
zuk errespeto ederra dezu  
iruroigarren urtian.

*Uzt.:* Aur txiki nintzan nere amaren  
sabeletikan erteran,  
iduritzen zat momenturikan  
onena ura ote dan;  
oraintxen iya irurogeiko  
urtia nola bete dan,  
zu're ikusi naiko zinduzket  
ordu artan zenbat zeran.

*Las.:* Berrogei ta bat urte dauzkat nik  
eta azala zimurtu;  
lantegia len gogorra nuen,  
oraindik ez da xamurtu;  
azkena ere badatorkigu,  
baño etzaitez bildurtu:  
zuk egin dezu umia jaio  
ta oraiñ ume biurtu.

*Uzt.:* Buruan ez det illerik eta  
kendu ezkerro txapela  
iya-iya galduta jarritzen da  
gizon zarraren itzala;  
atarramentu txar samarra zuk  
izango dezu bestela,  
gizon egiten ez bazerade  
ni aurtu naizen bezela.

*Las.:* Lenago esan eztedan dana  
esango det orainguan:  
zu bezelaxe Jaunak ni ere  
umia egin ninduan;  
arrazoi ortan etzera egon  
alako sustrai senduan,  
txapela kendu dezu baitzaude  
apaiz jaunaren onduan.

*Uzt.:* Txapela zergatik kendu deten  
orrek eman du tankera,  
pentsatzen nuan gauza ori nik  
len e gutxi gora-bera;  
baña gauz danak ezin litezke  
golpe batian atera,  
beste pixkat bat obe dîgu egin  
emendik pixka batera.

#### IV

Isasondo'ko Jesus Lete'k: Gaurko egu-  
nean Urtain'ek ots aundia dauka boseo-  
-asunto ortan. Datorren ostegunean, Jaun-  
goikoa lagun, aleman batekin neurtuko

da Barcelona'n (4). Eta Barcelona'n dau-  
dela pentsatuta, ara emen bi boseadoreak:  
Lasarte jarriko degu alemana bezela; eta  
Uztapide, Urtain bezela. Bien artean egin  
dezatela, boseoa gai artuta, bertsotan.  
Asi, Lasarte:

*Las.:* Urtain, badakit oso (6)  
pizkorra zerana,  
ostegunean guaz  
gu alkarrengana;  
zortzi bateri zaude  
pasada emana,  
baño gogorragua  
dezu alemana.

*Uzt.:* Ik egiñagatikan  
gogorren papela,  
lasai gelditutzen dek  
Urtaiñen sabela;  
ez al ago jakinda  
gogorra naizela?  
I're eroriko aiz  
zortzi oiek bezela!

---

(4) Aleman ori Bomber Kraus izan zan. 1969/  
III/6'an neurtu ziran alkarrekin. Bigarren asaltoan  
bota zuan Urtainek.

*Las.:* Joaterako arronkaz  
bete zera ondo,  
baño alemana dago  
indartsu ta sendo;  
olakorik ez dezu  
ikusi egundo,  
ez dituzu pasako  
amabost segundo.

*Uzt.:* Eniñ uste uenik  
ik ori esango,  
baña olako gauzarik  
ez dek or izango;  
beste danak bezela  
egingo dek tongo,  
bi salto ez dituk, ez,  
ik ere iraungo.

*Las.:* Urtaiñ indartsu beti  
zebilek atzetik,  
kontra egitia pena  
diat biotzetik;  
odola botako dik  
belarri-ertzetik,  
matralleko galantak  
artu bear zetik.

*Uzt.:* Pentsatu izango'ekela  
eman ainbat ordain,  
nere matrall-ertz oiek  
nola dauden gordin;  
saiatzen ba aiz ere  
daukaken alegin,  
ni botatzekorikan  
ez dek Alemani'n.

*Las.:* Gauza bat zetorkidak  
momentuz gogora:  
alemanak lendikan  
egin dik mejora;  
saiatzeko oraindik  
baziok denbora,  
laixter irten bear dek  
sokatik kanpora.

*Uzt.:* Alemana oraindik e  
animoso dago,  
baña nere aldetik  
ni're firme nago;  
beste zortzi bezela  
juango da kao,  
gau artan lonan gañên  
egin bërko du lo.



*Las.:* Alemanan gañetik  
ez da, ez, asiko,  
Urtaiñen joko ori  
ez degu graziko;  
etzerade luzaro  
gañian biziko,  
nik jo ta ilko zaitut  
sekula guziko.

*Uzt.:* Jendiak badâbilki  
millaka armoni,  
neri aurrera juatia  
baizakit komeni;  
Frantzia bezelaxen  
berdiñ Alemani  
ankaperatu arte  
enaiz gelditzen ni.

*Las.:* Baztarrak erosiaz  
Urtaiñ onen salsak!  
Gerorako jantzi nai  
zenituzke galtzak;  
baño alemanak dauzka  
piparra ta gatzak,  
artu bear dituzu  
muturreko latzak.

*Uzt.:* Lenguak erosita  
gerokuak erre,  
atzokua egingo  
diat nik biyarr e;  
ori emen esateko  
i ez aiz ezerre,  
ire bizkarretikan  
egingo'ît nik parre.

*Las.:* Bost minutuz ez dezu  
nerekiñ iraungo,  
ondora biltzean zu  
etzera iñungo;  
nora zuazen, Urtaiñ,  
pentsa zazu ondo,  
etzera, ez, luzaro  
txutikan egongo.

*Uzt.:* Komeni ziauk, bai,  
ibiltzia zuzen,  
gerta litxekek, bai, ni  
izatia eskasen;  
len e or bota dizkît  
nik zortzi bat zezen,  
gero ikusiko dîgu  
i zer mutill aizen.

*Las.:* Arrazoiari eman  
dizkiot tajuak,  
ezaguturik zure  
su eta ujuak:  
lenguak beraz izan  
dituzu bajuak,  
arrapatu dituzu  
len pipiak juak.

*Uzt.:* Lengo kontrariyua  
banuen plakua,  
aiekin bete diat  
nik diruz sakua;  
ezagututzen al dek  
nere ezker-kakua?  
Batekiñ egingo dit  
nik irekikua.

*Las.:* Oraindik golpe latzak  
eztaude neurriyak,  
eta badatozkigu  
ixtillu gorriyak;  
an pasako dituzu  
segundo larriyak,  
golpe batez kenduko  
dizkat belarriyak.

*Uzt.:* Pentsatu enaizela  
gero ari broman,  
i egonagatikan  
ere buruz sonan;  
muxuka ikusiko  
aute laxter lonan,  
ia gelditzen aizen  
bertan Barcelona'n.

*Las.:* Lotan gelditzen bada  
alemana triste,  
Urtaiñek aterako  
ditu milla txiste;  
kanpeon egiterik  
etzazula uste,  
Afrika'ko beltz oiek  
zu ilko zaituzte.

*Uzt.:* Indarra bazedukat,  
naikua memori,  
esnatuko dizkiat  
makiña bat txori;  
oraindik iñorekin  
ni ez nauk erori,  
gero ikusiko dîgu  
ango beltzen ori.

*Las.:* Beste bertso bat bota  
nezake sakona:  
pentsatu alemana  
indartsu nagona;  
Urtaiñ izanagatik  
boseuan ona,  
onek dantzan jartzen du  
len ilda dagona.

*Uzt.:* Zertako izketako  
oinbesteko presak?  
Erasaten dizkik ni  
ikusi nai-ezak;  
nik berotuko dizkît  
belarrien ertzak,  
enitxiotek bildurtzen  
zuri eta beltzak.

*Las.:* Indartu du au nunbait  
Donosti'ñ azpillak,  
orain geroztik datoz  
olako naspillak;  
bizkortutzeko artu  
dituzu pastillak,  
baño alemanak autsi  
biaizka kostillak.

*Uzt.:* Pentsatu ez nagola  
gero baraurrikan,  
nik etzedukat, motell,  
pastilla-indarrikan;  
ire kolpiak eztik  
jo-erazten lurrikan,  
naita ere eztiak  
emango urrikan.

*Las.:* Ni debilla izanda ezta  
zure kalterako,  
ortikan ez baitzera  
gaizki aterako;  
aiek bezela eztegu  
biok alkar joko,  
eta bertsuak utzi  
ditzagun geroko.

*Uzt.:* Jarraitutzia ere  
ez degu kastigu,  
baña bertsoarako  
ordûk jua zaizkigu;  
gaurko bromagatikan  
inportik eztigu,  
urrengo ostegunian  
ikusiko degu.

*Uzt.:* Zuen *Gaztelu* alkarte onetan (7)  
 gertatu gera ain zuzen,  
 lenguak lengo ziraden baño  
 pixkat aurrerago goazen;  
 nere Lasarte lagun maitea,  
 bertsoan asi gaitezen,  
 Zaldibia'ko lagun prestuak  
 bertsoz gozatu ditezen.

*Las.:* Txorien gisan etorri eta  
 ez degu askorik galdu,  
 alkartasuna bazegoan da  
 itxuraz degu bazkaldu;  
 oraiñ agurtu nai genduke guk  
 biotz barrengo *Gaztelu*,  
 au're ez gendun ezagutuko  
 iñortxok egiñ ezpalu.

*Uzt.:* *Gaztelu* ontara gaur egun gatoz  
 gu biok lendabiziko,  
 ibilli degu gere ustetan  
 zenbait kontu garrantziko;  
 zentzunik badet aztuta etzaitut  
 txoko maitea, utziko,  
 biotza pixkat ikuitu nazu  
 nere denbora guziko.

*Las.:* Alimentua eman bêr zako  
biotzak ez dezan etsi,  
itzal aundi au gogoratu nai  
degu biar edo etzi;  
gaurko eguna ez da Lasartek  
nai ordurako iritxi,  
zeru politak ikusi ditut  
baño olakuak gutxi.

*Uzt.:* Arriturikan gelditu naiz nî  
oneraño iritxirik,  
baldiñ ikusi ez banu ez nun  
izango esperentzirik;  
berriz ere onuntz goxo onen billa  
etxeko lanak utzirik  
etorri leike; janak bakarrik  
gizona ez dauka bizirik.

*Las.:* Artu genduen ezti-kutsuko  
biotzeko abisua,  
bertsolariak berekin dauka  
eginkizun bat pisua;  
baño uste det emen egiña  
degula pasadizua,  
pena bat daukat: utzi bearra  
olako paradisua.



*Uzt.:* Penagarria da, bai, Lasarte,  
gauza ori nereko,  
zuk bezelaxe nola eztet pena  
neronek ere idukiko?  
Berriz etortzen bagera aterik  
ez al dute irikiko!  
Paradiso au gaur uzten degu,  
ez dedilla izan betiko!

*Las.:* Ez nazu jarri biotz samintsu,  
ez nazu jarri lo-gure,  
bestien gisan lagun-premian  
bizitzen baigera gu're;  
lasaitasun bat emango dizut  
kezkaz beterik bazaude,  
berriz etorri nai badegu're  
ateak zabalik daude.

*Uzt.:* Nik banekien *Gaztelutarrak*  
zirala biotz bigunak,  
jakingo zuten zergatikan zan  
guri deitutzen zigunak;  
beti ez dira, ez, guretzako  
gaur bezelako egunak,  
baña badakit guk Zaldibia'n  
baditugula lagunak.

*Las.:* Emen bertsoak ez dira sortzen  
beti txukun da ugari,  
baño al bada maitasunean  
izketan nai degu ari;  
o, *Gaztelupe*, zu zera beti  
guretzako babeslari,  
nik zortzitxo bat egunerako  
artu zaitut ameslari.

*Uzt.:* Gure Lasartek abestu baitu  
oso era txukunean,  
amets goxoak aztutzen dira  
pixkat denbora junean;  
baña nik ere goguan izan  
neike zortzi egunean,  
eta berriro etorriko naiz  
ori aztutzen zaigunean.

*Las.:* Ezta aztu bear anaitasunik,  
lagun maite, alkarrenik,  
ez derizkiot naitasun onek  
txarkeririk dakarrenik;  
pixkat arindu gera gorputzez,  
buruz ez degu errenik,  
iñori gaizki itzegiteko  
Lasartek ez du barrenik.

*Uzt.:* Barkaziyua eskatuko deu  
gaizki itzegin badegu,  
motibo gabe zenbait arrazoi  
zital guk eman diogu;  
barrunpe ontan bizi zeatenak  
beti uda eta negu,  
oinbeste badakite guziak  
eta barkatuko zaigu.

*Las.:* Guk egin degun laguntzarekin  
asko kontentu dirade,  
nola baigeran abixatzean  
gu erri baten mirabe;  
emen jendea egiña dago  
juerga ederraren jabe,  
barkaziyua nori eskatu  
pekaturik egin gabe?

*Uzt.:* Barkaziyua eskatu eta  
nola ez eman eskerrikan?  
Guk nun pasatu diagu bada  
olain egun ederrikan?  
Berriz etziok alde ontarako  
deia egin bearrikan,  
nik etzadukat etorritzeko  
batere bide txarrikan.

*Las.:* Uztapidek du zuenganako  
maitetasuna agertu,  
Lasarteri're egun on onek  
biotza baidio lertu;  
egin dezuten mesede dana  
ez dakit nola eskertu,  
lau egunian jardunda ere  
ezin niteke aspertu.

*Uzt.:* Beñ artu degu bide bat eta  
oso zailla baida uzten,  
barka zazute nola ai naizen  
nere burua itxusten;  
nik ikusten dît oiek berak gu  
zenbat maitatzen gaituzten,  
esan nai nikik da eziñ esan  
nik zenbat maite dituzten.

*Las.:* Aspalditxoan ez gendun izan  
olako txoramenikan,  
anai maiteak, deitu zazute  
urtean beingoz benikan;  
ez pentsa gero billera onek  
ni aspertu nagonikan,  
baño mingañez ezin det esan  
biotzak nai duenikan.

*Uzt.:* Berriz ununtza etortzeko ere  
egiñak gaude promesa,  
eta pentsatzen degun gauza au  
gure Jainkuak nai beza;  
nai dan guzia iritxitzia  
munduan ez da erreza,  
baña egun bat pasatzeko ez da  
kuadrilla aldrebesa.

*Las.:* Gaurko kuadrilla, Manuel, ez da  
nolanai aldrebestuko,  
etorkizuna oraindik ere  
ez ote da erreztuko;  
*Gaztelumendi*'k bertsolariak  
beti ditu babestuko,  
deitutzen ez badezute ere  
zuekiñ ez naiz aztuko.

*Uzt.:* Badakizute gure indarrak  
ari dirala gutxitzen,  
da gazte batzun onduan ez da  
oso erreza luzitzen;  
asi bearra daukat derrior  
erri batzuek utzitzen,  
baña gustua dezuten arte  
lagun zazute bizitzen.

*Las.:* Oraindik ere, aita maitea,  
badituzu ainbat txiste,  
zu ikusita gazteago bat  
ez leiteke egon triste;  
danak aspertu ditugunikan  
arren etzazula uste,  
guk utzi bearrikan ez degu,  
berak utziko gaituzte.

*Uzt.:* Badakizute, zarren kontuak  
izaten dira tristiak,  
zuentzako ere alaitasunik  
ez dauka ni ikustiak;  
eta gañera bizi bearra  
nola daukaten bestiak,  
atiak zabal bear ditugu  
juan ditezen gaztiak.

*Las.:* Lenago ere esana zera  
amaika olako egi,  
zure lagunak bere garaian  
eman nai dizu arpegi;  
zuk etsipenak zenbait alditan  
baidauzkazu errezegi,  
ta obe dezu etsi gabetan  
gaztiagoeri segi.

*Uzt.:* Zuk badakizu nola daukaten  
keja eta armoniya,  
zu seme gixa artu-ezian  
ni galdua negon iya;  
oraindik illa ez nago baño  
jo zidaten agoniya,  
gaur e Zaldibi bisitatzeko  
banuen zure premiya.

*Las.:* Beraz piztutzen zera berriro  
Zaldibi'ra etortzian,  
nere biotza lasaitutzen da  
zuk egia aitortzian;  
deskuidotxo bat izandu dezu,  
pena daukat biotzian:  
tente inortxo ez det ikusten  
bein agoniya jotzian.

*Uzt.:* Erantzungo'izut ikusiya naiz  
makiñatxo bat peri ta,  
zu ez al zaude ni nola nagon  
kontura ongi erorita?  
Agoni baten dagon gizonak  
dauzka milla komeri ta,  
zutikan eziñ egon naiz eta  
nago sillan exerita.

*Las.:* Lanak baditut nola erantzun,  
aizu, Manuel, pentsatzen,  
etsai gaiztuak ibilli ziran  
zure anima tentatzen;  
biotza-gaitzak beñ ikuitua  
izandu zendun ain zuzen,  
baño San Pedrok ate-ondotik  
berriz bialdu ziñuzen.

*Uzt.:* Pekatu ori Lasartek eztu  
esan berealakuan,  
ikusitzen da momentu onetan  
nola zeguen jokuan;  
beraz San Pedrok utzi ninduen  
zeruko atetik kanpuan,  
ia obeto juaten naizen  
urrengo juandakuan.

*Las.:* Beste erantzun bat sortuko nuke,  
Manuel, berealako,  
erru txarrikan etzazu artu  
au esaten dedalako:  
San Pedro asega dago gazteak  
an aukeran diralako,  
eta zu onuntz laister bialdu  
zarregia zeralako.



*Uzt.:* Zuk badakizu, sendatu nintzan  
lendabiziko ajian,  
esango dizut juan nitzala  
oso biraje luzian;  
zu allegatuko baziñake  
ni juan nitzan parajian,  
inpernutara botako zaitu  
lenbiziko birajian.

*Las.:* Zuk esan arren ori guzia  
ezta errex siñixtia,  
gerta leike ni San Pedrogana  
zu baño len irixtia;  
luzatu gabe emango dizu  
Lasartek bere ustia:  
zuk bizitzeko naikua dezu  
erariyari uztia.

*Uzt.:* Bolara baten egona ziñan  
zu sekulakoik ixillen,  
eta iñori zertan galdetu  
ori an zertan zebillen?  
Orrek berak e noski erariya  
ibilliko zuan gallen,  
esan zioten alkola beintzat  
utzi zezala lenbailen.

*Las.:* Emen gelditu edo ara jun  
ibili nuen jokua,  
San Pedrok zion «Barkatzen diat,  
motell, oraindañokua!  
Geroxêgo're emen baziok  
Lasarterentzat lekua,  
ta Gipuzkua'n ibili ari  
bete artean kupua.»

*Uzt.:* Orain amar bat urte ibilli  
zuan naikua naspilla,  
laguna galdu bear zitzaidala  
eta ez nengon trankilla;  
erdia baño geiago kendu  
zioten beintzat urdalla,  
au belar ona izan balitza  
zegen aspaldian illa.

*Las.:* Irurogei bat urte dauzka ta  
au aitonaren mingaña!  
Bertso orrekiñ ere egin du  
berebiziko azaña;  
urdail erdia kendu ziraten,  
ez nitzan mutil bikaña,  
baño oraindik utzi dirate  
ondo betetzeko aña.

*Uzt.:* Beste bertso bat falta da noski  
oraindik erremateko,  
erdiya berak esan dizute  
nik neukana esateko;  
urdaill erdia kendu zioten  
da ez du beretzat kalteko,  
oraindik ere badu lekua  
orrek egiña jateko.

*Las.:* Martxa geiegi artu baño len  
nijua pauso geldira,  
orren esanak kontzientzian  
ondo kabitzen al dira?  
Begira jarri bear dezute  
beraren buru garbira,  
rusuak baño len Uztapide  
iritxi da illargira.

*Uzt.:* Gure Lasarten azken bertsuak  
eztira oso gozuak,  
nik bezelaxe lagun guziyak  
izan dituzte jasuak;  
batzuk illargi erdia dute  
baña nik dauzkat osuak,  
oraindik ununtz bilduko dira  
ameikano ta rusuak.

*Las.:* Amerikano eta rusuak  
bildu litezke berdintsu,  
zure illargiak baldin badauka  
goikuak ainbat serbitzu;  
geiegi izketan ari gera ta  
artu dezagun deskantsu,  
zuri arrazoi ematen dizut  
edo bestela ekatzu.

*Uzt.:* Badakizute, geitxo gerala  
itzegiten arrixkatu,  
ortara nola gu sartu geran  
ezin leike siñixtatu;  
arrazoi nai du ta eziñ eman,  
neri alperrik eskatu;  
gañekuak e zerbait badira  
eta zeoiek juzkatu.

*Las.:* Orain artean barkaziyuak  
beti ditut eramanak,  
oiek irixten ain du errexa  
bide ona deramanak;  
izketan ola jarriazten gaitu  
alkarren lagun izanak,  
jaunak, ezertan utsegin bada  
barkatu gaizki esanak.

*Uzt.:* Badakizute barrunpe ontan  
guk gaur zer itzezin degun,  
oraindik ere aitu gindezke  
aste betean gau t'egun;  
alere gure kopetarikan  
ez da ikusiko illun,  
biar goizian izango gera  
atzo giñan ainbat lagun.

*Las.:* Ara nolatan arkitzen geran  
goizian da illuntzian,  
xamur itzezin izan du batek  
txit biotza biguntzian;  
emen arkitzen gera, lagunak,  
aingeru batzuen antzian,  
berriro ere bildu nai degu  
zuek abixatutzian.

*Uzt.:* Badakizute ixildu-ordua  
nola daukagun betia,  
ez genduke nai beste bateko  
emendik gaizki juatia;  
zer arraio da astakei batzuk  
guk alkarri esatia?  
Beste gauzarik ez da ezertxo:  
konfiantza izatia.

*Las.:* Anaiak, badu emen Lasartek  
lagunak ainbat delitu,  
pekatu danak bear bezela  
konfesatuko balitu;  
alkolez bete gerade eta  
oraiñ eziñ errenditu;  
arrazoi dauka: astakeriak  
astuak egiten ditu.

*Uzt.:* Oraintxen ere arrazoa du,  
bai, nere lagun prestuak,  
baña nolabait egin nai giñun  
gure lagunen gustuak;  
gizonai nola jarriko zaizka  
orrelain gauza estuak?  
Astuak jaio giñaden eta  
bearko degu astuak.

*Las.:* Ni illez ongi jantzia nago,  
kopet-azala zimurra;  
asto onaren serbiziya  
egiten ez det xamurra;  
etxera nola juango geran  
auxen da nere bildurra;  
eta onekiñ akabatzen det:  
ara danori agurra.

*Uzt.:* Nik ere nola ez nezake ba  
nere biotza xamurtu?  
Saio luzia asi genduen,  
bearko degu laburtu;  
berriz e zuen lagun gera gu,  
etzaitezela bildurtu;  
betiko ez dedilla izan au  
baña orra gaurkoz agurtu.

**BINAKA, GAI LIBREAN**



## BASARRI TA LASARTE

Saio au ere Zaldibia'ko «Gaztelumendi» lagun-artean egiña da. 1964 urteko Azaroan egin zan, baña egunik ez daki-gu. Aldi artan Basarri ta Lasarte ekarri zituzten.

Lasarte, artean urdalletik operatu berria zan. Ori gai artuta, bertso ederrik bota zuten bi bertsolari auek.

Bertso geiago ere bazuan saio onek, bañan ez ditugu danak jarri.

Beti bezela, bertso-artzallea Martin Ibaguren izan zan.

*Bas.:* Era ontako lagun-arte bat (8)  
nola eliteke maite?  
Ni gustora naiz eta, laguna,  
zu ere esnatu zaite;  
onikan eztadukate emen  
gu biok asi bitarte,  
garaia da ta txiki batzuek  
moldatu'itzagun, Lasarte.

*Las.:* Lasartek ere badu gogua  
zerbait adierazteko,  
emen gogua anai maiteak  
gure berri ikasteko;  
Basarri, pentsatzen negon neu're  
garaia zala asteko,  
lan pixkat egin bearra dago  
jornala irabazteko.

*Bas.:* Zaldibitarrak bein bear eta  
gertatzen dira ain trebe,  
iru-lau mai santun ondoan  
jarrita gaude dotore;  
ordua etorri eta atzera  
etzagula egin beiñere,  
ajola aundirik ez digu izango  
pagatzen ez badute're.

*Las.:* Nere izketak ez dira izango  
ondradu eta txukunak,  
baño ateratzen saia gaitezen  
axalean dauzkagunak;  
oraiñ urrengo izan giñala  
beatzi illabete junak,  
gauz orren berri ondoen emango  
du Salaberria jaunak. (1).

---

(1) Justo Salaberria, lagun-arte ortan buru egi-  
ten zuana.

*Bas.:* Oraintxen ere ondo mintza da  
or Lasarte lagun fiña,  
gauez giñan da geure ustetan  
egin gendun alegiña;  
bederatzi illabete pasa'ida,  
oraintxen nago jakiña,  
gaurko deirikan etzan izango  
gaizki portatu bagiña.

*Las.:* Zer itzegiñik badago emen  
eguarditikan gabera,  
asko gustatu zaigu, Baserri,  
bertsu orren akabera;  
oraiñ artian bezelaxe nai  
degu emendik aurrera,  
auek segiko dute abixatzen  
gu saiatutzen bagera.

*Bas.:* Zaldibitarrak, oraingo au're  
entzun zazutela ondo:  
boza pixka bat ekarri degu  
eta memoritik sendo;  
beti iaioak ez gera egongo,  
ori ez det nik esango,  
baña al dana egiteko ez da  
gure paltarik izango.

*Las.:* Zaldibi ez degu arrituko  
gauzak nola dakizkiyan,  
asieratik mintzatu gera  
gu modu txukun askiyan;  
beste bat ere esplikatuko  
dizu Lasartek itz biyan:  
gaur bost illabete ni nitzala  
kutxilluaren azpiyan.

*Bas.:* Gaur bost illabete Basarri onek  
saltoka zuen malkua:  
lagun onena ospitalean  
oso gaizki gertatua;  
mediku on batek zorionean  
eman baizizun txertua,  
Jaunari eskerrak eman zaizkazu  
oinbestean geratua.

*Las.:* Egun artan ni goizetik nitzan  
kordia kenduta maian,  
beste batzuek bisitara jun  
ni ondo ikusi naian;  
Basarrik ere malkoa zuen  
bere arpegi alaian,  
nere biotza poztu zan berriz  
zu juan ziñan garaian.

*Bas.:* Egun aretan ospitaleko  
martxa illun da tristea:  
bat negar-antsiz, eta korrika  
ikusten nuen bestea;  
neroni ere kosta zitzaidan  
zure koartora sartzea,  
nola sentituko ez nuen ba  
lagun onena iltzea?

*Las.:* Zeruko Aitak zuri eman zizun (9)  
ara joateko argiya,  
olakoxian erakusten da,  
ai, kontzientzi garbiya;  
neronenzako're tristura zan  
gorputzaren pikardiya,  
entenimentuik etzuten kendu,  
estamua bai erdiya.

*Bas.:* Estamaguai erdia kendu  
ta etortzen dira galerak,  
Manuel maite, olaxe dira  
lur ontako goraberak;  
nik ondo dakit zuk etziñula  
pasatu une ederrak,  
oraindik ere bizirik zaude  
Jaungoikoari eskerrak.

*Las.:* Alaitasuna izaten degu  
kantura gatozenean,  
baño ez-bearrak ere artu bear  
gugana datozenean;  
danak pasata ementxen nago  
Jainkuaren izenean,  
kantatutzeko ere pozikan  
bizirikan naizenean.

*Bas.:* Manuel Lasarte, ez dizut nik  
albotik emango lata,  
baña kantatu bearra nago  
oraintxen egi aparta:  
Gipuzku onek zureganako  
badu maitasun galanta,  
zeñek lagundu beti daukazu  
ortâño piña zera-ta.

*Las.:* Pixkat samurtzen asia dago  
gaur nere biotz makala,  
zuk badakizu, Baserri, ondo  
biok anaiak gerala;  
ta badakizu besteak ere  
gure on-zale dirala,  
nork lagundua badaukat, lagun,  
zu lenbiziko zerala.

*Bas.:* Ara zer esan bear nizuken  
ta datorkidan bertsoan:  
zurekin beti aritutzen naiz  
olako izketa gozoan;  
malko-negarrik ez ikusi nai  
iñoren matraill-ondoan,  
beste saio bat egingo degu  
kafea artutakoan.

\* \* \*

*Bas.:* Len egun argiz geunden, (10)  
orain illunduta,  
uste gabe denbora  
pasatu degu-ta,  
Zaldibi'ko jendeak  
ondoan batuta,  
famili bat egiñik  
gu alkar artuta;  
orain goazen etxera  
batzuk kantatuta.

*Las.:* Nik lanean asteko  
ez neukan gogorik,  
baño eziñ eduki  
itxita agorik;  
munduan nun egun bat  
au bezelakorik?  
Ekiñaldiak ez du  
neretzat mejorik,  
nik ez al nuen bear  
jateko denborik?

*Bas.:* Erantzuna emango  
dizut nik pozikan,  
guzia esateko  
ez daukat lotsikan:  
iñoiz etzait gertatu  
neri olakorikan,  
jateko ez nizun, ez,  
uka denborikan,  
baña ezpaidet ikusi  
bokadillorikan.

*Las.:* Badakizu zergatik  
dan nere ertera,  
alkar maitatzen guaz  
urtetik urtera;  
sentitzen dan bezela  
nua esatera:  
ain gustora bildu naiz  
ni zuen tartera,  
baño nolatan egin  
nik bi lan batera?

*Bas.:* Badakit etzerala  
ibilia ondo,  
zure osasuna ez dago  
oraindikan sendo;  
bestela ez nizun nik  
gauza au esango;  
konseju txarrik ez du  
Basarrik emango:  
gorputza ondo zaitu,  
ori da lenengo.



*Las.:* Zure akordamena  
izandu da garaiz,  
da erantzungo dizut  
nik arpegi alaiz:  
gaur berdindua nago  
txuletaiz ta arraiz,  
ta olako egunak  
sortutzen baida maiz,  
ai, Basarri, ni ondo  
laister jarriko naiz.

*Bas.:* Ez det nik erantzungo,  
ez, arpegi beltzez,  
ezpaidakit portatzen  
baldar edo trakets,  
lagun ona naizela  
esan zazu baietz;  
ez ibili beintzat zu  
egarri ta gosez,  
lenbailen osatzea  
opa det biotzez.

*Las.:* Neu're erantzuteko  
ez nago makala,  
zuri entzun ondoren  
ain bertso apala,  
buelta moldatu nai det  
nola edo ala:  
zeuk ongi badakizu  
lagunak gerala,  
nik beti aitortzen det  
neure aita zerala.

*Bas.:* Zuk ematen didazu  
aita baten era;  
ez dago olakorik,  
biok anai gera;  
kantatuaz jarraitu  
zazula aurrera,  
osatu berriz ere  
len ziñan klasera,  
alargun gelditzen naiz  
zu galtzen bazera.

*Las.:* Nik izan-ezagatik  
zuk ainbeste gradu,  
itzegingo nizuke  
umil da onradu:  
zu zera ontan errege,  
ni nago soldadu,  
orain arte alkarrekin  
ondo izan gera gu,  
ta baita gero ere  
Jainkuak nai badu.

*Bas.:* Jainkoak eman zizun  
bertsotako griña,  
propio baizera zu  
ortako egiña,  
erriz erri ibiltzeko  
lagun atsegiña;  
orain bota dezuna  
dotore ta apaña,  
soldadua bada emen  
gaur errege aña.

*Las.:* Zeruko Aitak nai badu,  
gure ezaguera  
ez al zaigu galduko  
goizetik gauera;  
len ainbestexe lagun  
emendik aurrera,  
atsegiñez bildurik  
alkarren urrera,  
euskera ez da galduko  
gu bizi bagera.

*Bas.:* Erori nai genduke  
gu zuen sarean,  
emen ezpaigaude gaur  
paraje txarrean;  
andreari agindua  
illunabarrean  
azalduko naizela  
gaur garai onean;  
berriz ere abixatu  
nai dezutenean.

*Las.:* Itzegin dezu izarra  
baño apañago,  
erantzungo'izut iñoiz  
baño bikañago:  
auek kontentu dira,  
ori bistan dago,  
bixitatuko'itugu  
len baño geiago,  
ta nai dezunên guazen,  
zure mende nago.

## LAZKAO-TXIKI TA LASARTE

Bertso auek, Zumarraga'ko Aginaga'n, 1968/XI/17'eko bazkalondoan, Lazkao-Txiki ta Lasartek kantatu zituzten. Ormaiztegi'ko Bixente Mujika'k artu zituan magnetofonoz.

*Lazk.:* Ikusten det jendia (11)  
umorez dagola,  
baita neroni ere  
tenplian nagola;  
gure adixkide au  
asi zaigu ola,  
dozena botatzeko're  
etziguk ajola.

*Las.:* Lana agindutzeko  
zeñek du arrazoi?  
Utsa erantzuteko  
balegoke sasoi;  
zerbait sortuko da ta  
egon zaite lasai,  
etzerate egon ni  
tenplean jarri zai.

*Lazk.:* Lasarte, badaukazu  
bildurtian traza,  
eguardi arteko otza  
ez al zaizu pasa?  
Jan degu garbantzua,  
ôlkia ta aza,  
berotuko aiz eta  
asi adi lasa.

*Las.:* Bertsoa pentsatzen e  
pixkat itxaro nik,  
berotutzen bagera  
emen ez da bromik;  
ez pentsa gero Lasarte  
eskaxa zegonik,  
gizonikan ez da ni  
bildurtzen nauenik.

*Lazk.:* Nere lengo bertsuak  
ez al zian mingo!  
Dakitela ez diat  
iñoiz utsegingo;  
ik esan ezpauken  
enian jakingo,  
gizon jatorrak ez dik  
gaitzikan egingo.

*Las.:* Gorputz extua det nik,  
biotza zabala,  
ta izketa gizenak,  
naiz egon argala;  
antzeman dizut zuri  
laguna zerala,  
ta badakizu ongi  
konpontzen generala.

*Lazk.:* Ontzat artu dizkiat  
esandako danak,  
neuk ere baseduzkat  
eskaxaren famak;  
ariñak biok emen  
kanpoko geranak,  
bañan eiten dizkîgu  
aundiaren lanak.

*Las.:* Eztena sartu dezu  
zuk nere birikan,  
geroko ez du emango  
txit inbiririkan;  
onez aurrera nola  
egon geldirikan?  
Pixuan ez daukagu  
alde aundirikan.

*Lazk.:* Alturan ni baño geio  
zeozer zera zu,  
lastima korputz ori  
mi-antxa daukazu;  
ni berriz flakua ta  
txikia naukazu,  
jango al dizkiagu  
zaku bana pentsu?

*Las.:* Zuk eraman ezazu  
artutako salla,  
komeni baldin bada  
erabilli malla;  
zuk baño altuago  
beti det nik talla,  
pixuz berdintzia nik  
ez da gauza zalla.

*Lazk.:* Lasarte, etzak artu  
orrenbeste zaputz,  
korputza dekelako  
mamietatik uts;  
ezin jan baldin badek  
janari egin bultz,  
naiago nitek banik  
ik ainbeste korputz.

*Las.:* Esaten jardun arren  
bat eta bestia,  
zure gaurko bertsuak  
eskaxak ezta;  
nere oraingo erantzuna  
da ondo kostia,  
naikua egin degu ta  
jan zagun postria.

*Lazk.:* Neuk ere banedukan  
ixildu-asmua,  
luzaroan juaten da  
kantuzko gogua;  
Lasarte aixkidia,  
ixiltzera nua  
jan bitartian matsa  
eta platanua.



## ORMAIZTEGI'N, 1969/XI/30'an

Onako bertso-sail au, 1969'gn. urteko San Andresetan kantatu zuten Lazkao-Txikik eta Lasartek, goizeko saioan. Ormaiztegi'ko Bizente Mujika'k jaso zuan. Lenengo bertsoaren erdia ez da ondo arzen; orregatik puntuz utzi degu.

*Lazk.:* ..... (12)

.....

.....

.....

ta bazekiat Ormaiztegi'n gaur  
gaizki ez dirala biziko,  
eta nik ere auxen opa det:  
egun on lendabiziko.

*Las.:* Onek asera eman du eta  
nik bearko diot segi,  
lanari beti bere garaian  
ematen zaio arpegi;  
anai-arrebak, zuen artera  
ez gera etortzen maizegi,  
ongi-etorri egiten dizut,  
biotzeko Ormaiztegi.

*Lazk.:* Gu ere zuek ola ikusita  
gaur ez gabiltza naigabez,  
festa aldera danak bildurik  
urte danetako legez;  
eguna ere obia egiten  
neguan ez baida errez,  
aurtengo ontan portatua da  
zuen zaindari San Andres.

*Las.:* Astean lana egiten degu  
gogor sei egun luzetan,  
ta igandean beti pentsatzen  
bizi-moduko gauzetan;  
bartarratsean gaurkoarekin  
ibili naiz ametsetan:  
ai zer eguna pasa biagun  
aurtengo San Andresetan!

*Lazk.:* Bartarratsian amets-aldi bat  
egiña zera orduan,  
beti etzera triste ibiltzen  
esaten dezun moduan;  
erri ontako festa-eguna  
erabilli du goguan,  
Lasarte oni oaindik etzaio  
ilusio dana juan.

*Las.:* Emango'izkizut al nezakean  
erantzunik umillenak:  
askotan emen sufritutzen du  
biotzikan ixillenak,  
eta pentsamentuak geiegi  
gizonikan debillenak,  
gero askotan utsa izaten du  
ametsetan dabillenak.

*Lazk.:* Geroko utsa aztu zazu ta  
zabiltzan lekua maite,  
oraindik ere festaren zale  
bizi zerade nunbaite;  
ilusiyuak sarritan ame-  
tsa eragiñ izan dute,  
une goxotan bizitzen zera  
ala zabiltzan bitarte.

*Las.:* Zuk, Joxe Migel, goxotasunak  
asi nai zenduke pizten,  
gazte-kontuak zartu ta gero  
oso zalla da berrizten;  
zail izango da lengo sasoia  
berriz gugana irixten,  
Lasarte oraintxe asia dago  
amets egin da sinisten.

*Lazk.:* Aizu, Lasarte, asi zaitia  
nik esandakuak artzen,  
eta etzazu orrenbesteko  
negarrikan egin emen;  
dantzatutzeko balio ez badu  
balio diteke jaten,  
ta sinistatu festetarako  
gizonik ez dala zartzen.

*Las.:* Nerekin gizon txikia dezu  
zeure aldamenerako,  
gure Jainkuak gorde gaitzala  
gu umore onerako;  
kantuan aspertzen ari naiz ta  
indar gutxi lanerako,  
onez aurrera bearko det nik  
besterik ez danerako.

*Lazk.:* Beti bezela Lasartek digu  
errespetuan itzegin,  
eta nik ere segi nai diot  
zaputzik artu ez dedin;  
edade ortan zertan kontatzen  
dezu zuk orrenbeste min?  
Gizon aundi bat eiña zaude ta  
negarrik etzazu egin.

*Las.:* Berriro ere entzun ditut nik  
zure izketa txukunak,  
amaik'olako len e badira  
zure kolkotikan junak;  
ez dizu damurikan emango  
nere arrazoia entzunak:  
errespetua gorde oi du beti  
gaztetan ikasi zunak.

*Lazk.:* Batzuentzako pozgarri gaude  
gu aldamio goiean,  
ez gaudelako saltatutzeko  
lenagoko sasoiean;  
ikusten ditut gazte batzuek  
ortxen egon eziñean,  
gure bertsuakin aspertuta  
dantzatzen asi naiean.

*Las.:* Onen itzari antzeman diot  
agurtzera gatozela,  
emen luzaro jardunda, jaunak,  
gauz onik ez da bestela;  
gero zinean arratsaldean,  
papelak dion bezela,  
oraiñ oinbestez ixiltzen gera  
dantzan egin dezatela.

## UZTAPIDE TA LASARTE

Ereñozu'n, 1970/VI/13'an

Ereñozu'ko festak San Antonio egu-  
nean izaten dira, Garagarrillaren amai-  
ruan. Ta urtero Uztapide ta Lasarte era-  
maten dituzte; 1970'garrengo urte ontan  
ere biak etorri ziran.

Goizeko ta arratsaldeko saioak onako  
auek izan ziran. Oso-osorik argitaratzen  
ditugu. Plazan kantatu zituzten.

### GOIZEKO SAIOA

*Las.:* Jaunak egun on, astera guaz (13)  
daukaguna ematen-da,  
anai-arrebak, bildu zerate  
igaz emen ziñaten-da;  
gu ere pozik Eriñozu'ra  
geure etxetik ertenda,  
maite dan ura ikusi gabe  
urtea luze juaten da.

*Uzt.:* Bertsotan asitzeko orduak  
nola giñuzen beteak,  
itxura ona emango'u noski  
zerbait esaten asteak;  
Ereñazu'ra etorri eta  
zabalik zeuden ateak,  
Jaunak egun on dagizutela,  
anai-arreba maiteak.

*Las.:* Gure Eriñozu'k oitura zarrez  
jarraitzia nai omen du,  
borondatea ona izanik  
beñ ere ez da berandu;  
erreka polit onen itxura  
burutik ezin zait kendu,  
bertan biziko giñake pozik  
naiko dirua bagendu.

*Uzt.:* Gure Jainkoak emana zigun  
bertsotarako artea,  
juan dan urtian emen giñan da  
aurten e badeu partea;  
nola pozikan ez ba etorri  
onlako leku bateâ?  
Etorritzia txit erreza da,  
kostatzen zaigu juatea.

*Las.:* Ni ere oso konforme nago  
lagunaren esanean,  
etortze ori pozik egin dut  
eta bide zuzenean;  
juatia zalla dala esaten  
zu're oraingo unean,  
juango gera entzule danak  
aspertzen ditugunean.

*Uzt.:* Bertsoatarako bestetarako  
ez al da gure bearrik?  
Lanik agintzen ezpadute're  
neretzat ez da okerrik;  
erreka ontan lanik gabe're  
pasa leike egun ederrik;  
zu lanak egindakuan juan,  
geldituko naiz bakarrik.

*Las.:* Manuel, ez det nik ontzat artu  
zuk oraiñ emen esana,  
neu ere ez naiz langille aundia,  
o adiskide, izana;  
bestela bizi al baliteke  
zertarako eskatu lana?  
Ori da gero tontonak ere  
beti egiten duana.



*Uzt.:* Ereñazu'n guk egun bakarra  
pasatzen degu urtian,  
prueba egin dezagun aurten  
despatxatu bitartian;  
lagun jatorrak ere badira  
kuadrilla onen tartian,  
abek estimatuko gaituzte  
dirua degun artian.

*Las.:* Lagundutzeko ere Eriñozu-  
tarrak ez dira kupira,  
gu ere pozik etortzen gera  
maitasuna dan tokira;  
lagun urkua bildu bear du  
komeni dan errukira,  
baño alperrik gu mantendutzen  
laister aspertuko dira.

*Uzt.:* Bein bear eta oraintxen ere  
garbi dezu zuk esana,  
ez baizerade zu're langille  
amorratua izana;  
geienez ere emango dute  
guretzako egun bana,  
emen ez dago zer egiñikan  
utzitzen badegu lana.

*Las.:* Zu beti gizon prestua zaitut  
nere aldamenerako,  
bertso batian zortzi arrazoi  
onek gutxienerako;  
ontan narrasten ari naiz eta  
balio ez lanerako,  
onez aurrera bearko det nik  
besterik ez danerako.

*Uzt.:* Sobratu-antza ote zauden zu  
arrazoi orrek zeritzan,  
alamoduzko kontu batzukin  
beste batzuk e zebiltzan;  
baldin sobratu bazerade zu  
ni're onena izan nitzan,  
errero jarrai bearko dezu  
eta nik nekazaritzan.

*Las.:* Ia aspertzen asia nago  
errerotzako lanean,  
urtea pranko badaramakit  
orko artu-emanen;  
txutikan ere juxtua nago  
Jainkoaren izenean,  
etxean pozik egoten dira  
ni kanpuan naizenean.

*Uzt.:* Pena artzen det pasia zera  
amaika egun samin da,  
baña aspaldian ikusten zaitut  
nekiari aldeginda;  
lana egiten du bere kontura,  
diruen jabe egin da:  
iru balkoi txar montatu eta  
dirua konta ezinda.

*Las.:* Nik egin dedan gauza ortikan  
da osasuna ondatu,  
eta nerekin gizon berririk  
ezin liteke fundatu;  
balkoi kaxkar batzuek egin da  
diru galanki kobratu,  
alare ez degu gere denboran  
eze askorik sobratu.

*Uzt.:* Oraindikan e nik banituzke  
zerbait esateko gaiak,  
lan geiegi egin nai orrek ere  
baditu bere etsaiak;  
gorputza pixkat ondatu dizu  
azkar aberastu naiak,  
sobratu oiek jan bitartian  
artu biauizuz jaiak.

*Las.:* Poztu izan naiz iñoiz askotan  
laguntzalle zerala're,  
egia esanda arrazoirikan  
ezin garbitu ala're;  
zuri balkoi bat egin nizun bein,  
egiñ ez banizu obe,  
zortzi urtean emen naukazu  
zuk bera ordaindu gabe.

*Uzt.:* Ori're esan bear zenduan  
testigu danen aurrian,  
eskerrak lotsa aundirikan ez  
daukatela muturrian;  
beti etsaiak izaten dira  
langille txarren urrian,  
bera etxera iritxi baño  
len balkoia zan lurrian.

*Las.:* Balkoia beti lurrean dago  
balkoira jaso-ezian,  
anka sartze bat egin dezu gaur  
paraje aldrebesian;  
zortzi urtean egon naiz bera  
kobratutzeko pozian,  
ortik pentsatu zenbatxu diru  
dan bertsolaien etxian.

*Uzt.:* Esplikatzeko oso polita  
gure arteko kasua,  
ori kobratu zai pasa bërko  
dezu bizitza osua;  
kobrantza egiteko genduen  
zortzi eguneko plazua,  
balkoia zegon eroria ta  
oraindik ez du jasua.

*Las.:* Bere burua garbi egin du  
nai dituenak esanez,  
beti olaxe ibiltzen da au  
naiz arrazoirik izan ez;  
gizon gogorra da Uztapide  
nik kalkulatzan dedanez:  
balkoi-diruak egin zizkiran  
agindu eta eman ez.

#### ARRATSALDEKO SAIOA

*Las.:* Lendabiziko arratsalde on,  
anai-arreba maitiak,  
ez du nekerik zuen aurrean  
saiotxo bat egitiak;  
pena emango liguke zuek  
triste utzita juatiak,  
beti zabalik nai genituzke  
Eriñozu'ko atiak.

(3)

*Uzt.:* Goizian bezela guk kantatzen  
degu illunabarrian,  
zertan ibilli estuasunez?  
beti patxara ederrian;  
naiz-ta gu egon debil samarrak  
da gorputza ez indarrian,  
bertsuak aixa kantatzen dira  
entzule onaren aurrian.

*Las.:* Bildurrik gabe asi gindezke  
nekerik gogorrenian,  
lautik irutan bildurrik geien  
izaten da aurrenian;  
baño alare alaitasuna  
bada gure barrenian,  
kantatzeko're oraintxe gaude  
sasoirik ederrenian.

*Uzt.:* Guk nai genduke indartutzia  
euskaldunaren izkuntza,  
orregatikan etorria naiz  
Oiartzun'dikan ununtza;  
indar aundia orri emateko  
debildua det gorputza,  
baña entzule onak egiten  
digute guri laguntza.

*Las.:* Biotza pozez bete dirazu  
itz ori entzun orduko,  
zer gertatzen dan jakingo degu  
emendikan bi orduko;  
bera ez bada igesi juaten  
guk ez degu bialduko,  
bertsolariak diran artean  
izkuntz au ez da galduko.

*Uzt.:* Lenguari eutsi nai genioke,  
ez da berria sortzea,  
orretarako aski genduke  
indar geiago artzea;  
guk nai genduke mundu onetan  
paradisuan sartzea,  
ta ortarako aski baidegu  
Ereñozu'ra etortzea.

*Las.:* Aurtxo txikiak eingo balira  
izkuntz eder onen jabe,  
Euskalerrriak balio luke,  
Manuel, oraingo doble;  
emen zenbat eta geio jakin  
guztientzako da obe,  
auzuan ongi eraman leike  
etxekorik galdu gabe.

*Uzt.:* Irakurtzen e ikasi dute  
ta beste batzuk idazten,  
da guri berriz, lengo zarrari,  
euskerik etzaigu azten;  
etsia egon nitzaden iya  
baña asia naiz pozten,  
erdaldunaren umiak ere  
asi baidira ikasten.

*Las.:* Izkuntza ongi ikasitzeak  
iñun ez du deliturik,  
zuzen badabil segi lezake  
gauzak garbi kunpliturik;  
emen gabilta ikasi gendun  
pixkari ezin segiturik,  
iñortxok ez du, ez, irakurtzen  
Lasartek eskribiturik.

*Uzt.:* Eskribitutzen ikasten orain  
zu etzerade asiko,  
bañan zure seme-alabak ez  
diote euskerai utziko;  
ejemplo ona ematen dezu  
biarko edo etziko,  
izkuntza al danak ikasi baño  
geuria lendabiziko.



*Las.:* Seme-alabak ikasten dute  
aukeran datorkiena,  
euskera ederra ikasitzea  
gurasuak du naiena;  
nere semea saiatutzen da  
al duanikan geiena,  
bere aita xarra nola baituen  
erderaz ez dakiena.

*Uzt.:* Zeuen artian beti ibilli  
berezko izketa leguna,  
seme jatorra baidezu ura,  
ez baita zure laguna;  
beste izkuntzak ikasteko ere  
etorriko da eguna,  
baña lenengo amak siaskan  
erakutsi izan ziguna.

*Las.:* Obetoxêgo itzegiten da  
zerbait pentsatzen egonik,  
ez uste izan zure atzean  
ni alperrikan negonik;  
iñola ezin gentzake aztu  
gure izketa bigunik,  
ezertxo ez da guri burutik  
berau kenduko digunik.

*Uzt.:* Pozik entzuten ikusten ditut  
kristaubak aldamenian,  
naiago nuke izkuntz au bera  
balego mundu danian;  
oi eta amar urte ta geio  
ai gera bertso-lanian,  
bertsorik ere ez da izango  
euskera galtzen danian.

*Las.:* Arrazoi dezu, au galdu ezkeru  
bertsorik ez da geiago,  
gu bizi geran artean txutik  
iraungo balu naiago;  
nik bera ikasi nuen eta  
onetxek poztutzen nago,  
gure izkuntza galtzen bazaigu  
guria galdua dago.

*Uzt.:* Gauza auetxek adieraztera  
gaur naiz ununtz etorriya,  
da aspaldian larri gabiltza,  
nago ondo igarriya;  
euskerarekin aztuta dabil  
gaurko gaztedi berriya,  
baña euskera galtzen danean  
galdu da Euskalerrriya.

*Las.:* Bera galduko balitzaiguke  
ez digu pozik ematen,  
azken gabeko naigabien bat  
badator alakon baten;  
guraso zarrak, saia zaitezte  
itz goxo auek esaten,  
zuen ondorengo umetxoak  
bera ikasi dezaten.

**BINAKA, GAI EMANDA**

## EUSKERA TA EUSKALERRIA

Gabiria'n, 1968/V/18'an, Azpeitia'ko Lazkano ta Lasartek kantatutako bertsoak. Ormaiztegi'ko Bizente Mujikak artu zituan magnetofonoz.

Luzio Gabiria'k: Oraingoan, gai libre bezela erabiltzeko, euskera ta Euskalerrria. Or nai dutena artu dezatela. Asiera Lazkano'k:

*Lazk.:* Bat edo batek esan dezake: (14)  
«Sasoi onena juan zan!»  
Bañan oraindik egon zaitezte bertso geion esperantzan;  
gu lanerako bildu gera ta emen ez gaude zalantzan,  
iru edo lau kanta ditzagun Euskalerrrian gorantzan.

*Las.:* Ixilik ezin niteke egon  
garai auek iritxita,  
Euskalerrriak merezi dula  
ori nago iritzita;  
au degun bezin txoko politak  
munduak ditu gutxi ta,  
ni ez nijua beintzat iñora  
gure txokoa utzita.

*Lazk.:* Jaunai eskerrak sortu giñaden  
baratza bikañetikan,  
euskal odola dabil korrika  
bertsolaien zañetikan;  
berarentzako agur goxoak  
datozkit ezpañetikan,  
bera maitatzen baidet nik beti  
gauza danen gañetikan.

*Las.:* Gure amatxok geroko utzi  
zuen seme txukunikan,  
arrek laguntza merezi baño  
ez du izan lagunikan;  
zein izkuntza da gure euskera  
degun bezin bigunikan?  
Munduan ez da guri burutik  
au kenduko digunikan!

*Lazk.:* Aspaldin gora asi da eta  
bera ez dedilla erori,  
orrek onikan ezpailezake  
gaurkoz ekarri iñori;  
badakizute zeñen polita  
ikusten degun Gabiri,  
bera jarriko luke Lazkano'k  
euskeraren antz-iduri.

*Las.:* Gure izkuntzak txoko politak  
zizkigun aukeratuak,  
iya illian egon giñanak  
gaur gaude aurreratuak;  
amaika aldiz gustora gera,  
jaunak, gu etxeratuak;  
miñik aundiña ematen digu  
euskerara atzeratuak.

*Lazk.:* Askok zioten iritxi zala  
euskerara iltzeko bezpera,  
bañan norbaitxo etorria zan  
berriro erakustera;  
gere amaren izkuntza nola  
botako degu auspera?  
Nere entzule biotzekoak,  
maite dezagun euskera!

*Las.:* Akabatzeko nik egingo det  
azkeneko irrintziya,  
eusker a maite bear degula  
ala nago iritziya;  
auxe bakarrik ikasi nuen  
eta ez daukat utziya,  
nola galtzera bota bear det  
amatxok erakutsiya?



## SERMOLARIA TA GOSETIA

Zumarraga'ko Aginaga'n, 1968/XI/17'-an Lazkao-Txiki ta Lasartek kantatutako bertsoak. Ormaiztegi'ko Bizente Mujika'k artu zituan magnetofonoz.

Luzio Gabiria'k: Lazkao-Txiki izango da sermolaria; eta Lasarte, goseak eta egarriak amorratzen dagoan entzulea. Asera sermolariak emango dio, Joxe Migelek. Iruna bertso.

*Lazk.:* Gose dagona ezin liteke  
gizonak ongi juzgatu, (12)  
berekin dauka naiko egite,  
berekin zertan nekatu;  
bañan goseak zaude zu eta  
nere esana ondo artu:  
guztia berak dezake eta  
Jaungoikuari eskatu.

*Las.:* Jaungoikuari derriorrean  
guk asko diogu kendu,  
bera dala're eskeinka eta  
ainbat poza ematen du;  
sermoiarekin bizi-modua  
nai al zenduke zuzendu?  
Naiago nuke nik nere tripa  
ondo aseko bazendu.

*Lazk.:* Sermoiarekin berak dionez  
oso konforme ez dago,  
zu bezelako persona franko  
ola egon zan lenago;  
ta Jaungoikuak emango dula  
segurantzian ortan nago,  
zauden bezela bizi zera zu  
federik ez dezulako.

*Las.:* Fede sendoa aingeru batek  
artutzen du biotzian,  
nik ere berriz ori nerekin  
artu nuen jaiotzian;  
itzegin bearda're itzegin  
zazu denbora motxian:  
bestela ere naiko sermoia  
entzuten det nik etxian.

*Lazk.:* Nik ez dadukat bate kulpik zu  
buru-gogorra izana,  
eta faborez aditu zazu  
sermolaiaren esana:  
desiertuan —ez al dakizu?—  
Moisesi eman zion mana,  
fede oneko gizona zan da  
izan zuen naiko jana.

*Las.:* Nundikan nora artu zenduen  
zuk Moises orren nota?  
Apaiz jauna, zuk itzegin dezu  
lengo legiaren kontra;  
uste gabeko enbidotxo bat  
azpitik nai dizut bota:  
Jainkuari eskatzeko dio'nek  
berak ez du emango ta.

## NESKA-MUTILLAK

Zumarraga'ko Aginaga'n, 1968/XI/17'an Lazkao-Txiki ta Lasartek kantatutako bertsoak. Ormaiztegi'ko Bizente Mujika'k artu zituan magnetofonoz.

Luzio Gabiria'k: Joxe Miel izango da neskatxa, eta Lasarte mutilla. Illuntze batean neskari laguntzera joan da, ta, gaizto xamar izaki-edo, neskak txakurra xaxatu dio, eta Lasarte'k jo ta txakurra il. Iruna bertso. Asiera neskak, Lazkao-Txikik, txakurra il diolako.

*Lazk.:* Aizu, mutilla, emen alkarri (13)  
itzein biarra daukagu:  
kaletik onuntz neri laguntza  
ori artu dezu kargu;  
bañan bastante atrebitua  
ipiñi zeralako zu,  
dana merezi zenduen eta  
txakurra xaxatu zaizu.

*Las.:* Ito-zorian asi zitzaidan,  
zakurra etzan umiltzen;  
ark ere nunbait etzun ikasi  
bere tokian ibiltzen;  
eta mutilla alegindu zan,  
bai, txakur gaiztua iltzen,  
bestela berriz oso zalla da  
zuen etxe-ondora biltzen.

*Lazk.:* Garbi ta argi esaten dizut:  
zeu ziñaden utsegiña;  
postura ortan ez da ibiltzen,  
ez, beñ ere mutil fiña;  
ikuttu eta eldu saiatu  
ziñalako alegiña,  
zakurrik enizun xaxatuko  
formal etorri baziña.

*Las.:* Nunbait kulpante neu arkitzen naiz  
da bearko det aldegin;  
neskatxa gogor mintzatua zait,  
onekiñ ez da atsegin;  
zuk ere, lagun, bear ez dezun  
gisan etzazu itzegin:  
bi muxu eman nizkizun baño  
zirririk ez nizun egin.

*Lazk.:* Jende guziya enteratu da  
ni bizi naizen auzuan,  
amaika zirri egin zirazun  
zuk bide ortan pausuan;  
lagundutzerá etorri bear da  
mutil formalen moduan,  
lagun eitera etorri eta  
iya bota niñuzuan.

*Las.:* Ariña da ta neskatxa aizeak  
iya-iya eramanean,  
ni gogor xamar negualako  
artu nun aldamenian;  
baño saltakor sasoikua da  
geldi ezin egonian,  
nik oni zirri egiten nion  
txakurrik etzegonian.

## AITA-SEMEAK

Elizondo'n, 1969/II/16'an, Agirre ta Lasarte'k kantatutako bertsoak.

Mariano Izeta'k: Lasarte ta Agirre baserri bateko aita-semeak dira; Lasarte aita eta Agirre semea. Semeak nai du auto bat erosi, eta aitak ez du nai. Eta or dabilta orain eta beti eztabaidan. Launa bertso. Agirre'k asiera.

*Agi.:* Aizazu, aita, beti badegu (13)  
asarria eta pena,  
antzemate'izut lengo legian  
bizi nairikan zaudena;  
ez al dakizu zure belaunak  
nekaturikan daudena,  
automobil bat erosi eta  
ondo ibilli leikena?

*Las.:* Seme maitea, amaren bidez  
zu aitak zaitu len azi,  
komententziak ugariturik  
aurrerantz nai dezu asi;  
gazte jendiak esaten digu  
ola ez leikela bizi;  
kotxia erosteko dirua  
sobratu zazu lenbizi!

*Agi.:* Oinbeste diru badezu etxian,  
ortan ez dago kupira,  
noizian beingoz emate'iozu  
mordo ederrari tira;  
kotxe bat artu ta juañ giñazke  
azokara ta ferira,  
ez aprobetxatzekotan emen  
diruak zertako dira?

*Las.:* Arrazoi dezu, illunak dira  
lore gabeko jardiñak;  
zure ta nere pentsamentuak,  
seme, ez dira berdiñak;  
aita utzi ta kunplitu nairik  
zabiltz zeure atsegiñak,  
gordeta dauden diru pixk'aiek  
ditut neronek egiñak.



*Agi.:* Zere ustetan bota dirazu,  
aita, arrazoi sakona,  
aitortzen dizut aginpidea  
zure eskutan dagona;  
baña guziak zureak dirala  
ez da esatia ona:  
ni ere ez naiz oraiñ artian  
alperkerian egona.

*Las.:* Puntu bat irabazia dezu  
arrazoi ori esanda;  
aitortuko det: seme maite au  
beti zintzua izan da;  
orain kotxia nai luke eta  
beti badegu demanda,  
baño ez dezu, ez ekarriko  
aitak dirua emanda.

*Agi.:* Berrero ere petralkeria  
bere izketako sarreran;  
aurrerapenik ez da izango  
orain daukazu karreran;  
alkar itotzen emen gabiltza  
txakur-katuen tankeran,  
kotxe bat erosi ta itxuraz  
ia ba bizitzen geran.

*Las.:* Bizimoduan moldatu leike,  
ori da zuk diozuna;  
baño goguan artu biazu  
aita zarrari entzuna:  
makiña batek baztarra jota  
or galdu dute zentzuna,  
zu ill ezkeru juañ zan gure  
geroko etorkizuna!

## MAIZTERRA TA NAGUSIA

· Elizondo'n, 1970/V/17'an, Lasarte ta Azpillaga'k kantatutako bertsoak.

Mariano Izeta'k: Azpillaga nagusia da, eta Lasarte maizterra. Lasarte baserrian bizi da, eta orain nagusiak belardi obereña kendu eta pinoz bete dio; belardirik oberenean pinoa. Lasarte aserre dago, baina Azpillaga'k ere izanen tu bere arrazoiak. Bosna bertso. Lasartek asiera.

*Las.:* Garai batean nik, nagusia, (15)  
zuri ematen nizun musu,  
baño maiztarra jarria dago  
gaur oraintxen naikua su;  
zelairik onentxuena ere  
piñu aldatu dirazu,  
egia esan bear bagendu  
nagusi txarra zera zu.

*Azp.:* Maixter onek griñak zituen  
ta ezin bururatuta,  
ezin gauzarik erabaki zan  
elkarrengana bilduta;  
urteko errenta arkitutzen zan  
iñoiz ezin pagatuta,  
ta azterrenik onena zuan  
belardi piñu sartuta.

*Las.:* Berialaxe erantzungo'izut  
deskuidaturik zaude ta,  
maiztar-nagusiak alkarrekin  
bigurriturik gaude ta;  
oraiñ artean nik xuxen asko  
emana dizut errenta,  
baño illunpean artzen zenduen  
erreziborik gabe ta.

*Azp.:* Errenta beti pagatu dula  
maixterraren irrintzia,  
eta dana zan gezurrezkoa,  
au ez al da desgrazia?  
Belardiaren lau kantoetan  
arkitutzen zan sasia,  
orregatikan pentsatu nuen  
danian piñu sartzia.

*Las.:* Zelai ederrentxuenên jarri  
dirazu piñu illuna,  
nagusi-jauna, zure biotza  
ez dago oso biguna;  
itz baterako esango nuke  
etzerala euskalduna,  
piñu zar ori jarri dirazu,  
ura da zure laguna.

*Azp.:* Baserri on bat aitak utzia  
zuk bazenduen leenik,  
baña ez dezu sekula bete  
nagusiaren ordenik,  
etxe inguruan ua kenduta're  
terrenu asko egonik;  
baña gaur maiztar alperrarentzat  
ezpaidagoke lur onik.

*Las.:* Maiztarrak daukan komeri txarra:  
alperra bear mantendu;  
nagusi txarrak bere arrazoia  
beti ola eramaten du;  
maiztarra plakatutzen ari da  
ta nagusia gizendu,  
basarria ondo zegoan oso  
piñu sartu ez bazendu.

*Azp.:* Litekena zan ez sartutzea,  
baña garai beranduan  
oartu zera, eta orrela  
bearko dezu munduan;  
zazpi auntz eta iru astokin  
dana betetzen zenduan,  
ezer etzuan ematen eta  
argatikan sartu nuan.

*Las.:* Nagusi onek papelez egin  
digu amaika lumero,  
ta maixtarrari nundikan jango  
or zebillen egunero;  
auntzengandikan etakiñikan  
zuk ez al dezu espero,  
zuri ez dizu inportarik nik  
errenta eman ezkeru.

*Azp.:* Sasiz betea leno zegola  
nola nengon igarria,  
argatik daukat belardi ori  
piñuz beteta jarria;  
au baserritar alperra degu  
ta oso parregarria,  
onen antzeko asko badaude  
galdu zaigu basarria.

## NEKAZARIA TA PENTSU-SALTZALEA

Elizondo'n, 1970/V/17'an, Mattin eta Lasartek kantatutako bertsoak.

Mariano Izeta'k: Orai Lasarte ta Mattin. Ikusko dugu ok zer gauze duten. Mattin nekazaria da, eta esnea saltzen du. Lasartek pentsuak saltzen ditu. Nekazariak badu arrankure, esnea beiti eta bazkak goiti doazilako. Pentsu-saltzaleak ere baditu bere kezkek. Ikusiko dugu nork duen arrazoin. Bosna bertso. Mattinek asmenta.

*Mat.:* Gaurko egunian urrikaltzeko (16)  
baitago nekazaria,  
bai, gero eta okerrago da  
baserritako jendia;  
eta lagunak saltzen baigaitu  
pentso edo zaldaria,  
bere pentsotan eremaki du  
Mattinen esne-saria.

*Las.:* Bizi-modua ateratzen da  
lana egin da zaintzian,  
beti badegu diferentzia  
alkarregana biltzian;  
pentsua galesti dedan keja  
entzun da zure itzian,  
ori ordainduko dirazu laixter  
esnia galestitzian.

*Mat.:* Nik ongixko ezagutzen tut  
gaurko pentso-saltzailiak,  
auk etxez-etxe bere pentsuekin  
ortxe dira ibiliak;  
ta abillenak agertzen dira  
eskola duten jendiak,  
auek errezki txupatzen tuzte  
baserriko izerdiak.

*Las.:* Ugaritutzen zaizkizunean  
etxean esne-putzuak,  
baserritarra, izango'ituzu  
sekulako deskantsuak;  
zazpi bei dauzka bere mende ta  
aietatik bost antzuak,  
ta esaten du gero emen kulpak  
dauzkala nere pentsuak.



*Mat.:* Zuk saltzen tuzun pentso oriek  
lehen klasakoak eztira,  
azken aldian egotua naiz  
pentso tzar orri begira;  
esnia pezeta bostez beiti,  
pentsoa igo zazpira,  
pentsoa utzita obeko ditut  
beiak igorri mendira.

*Las.:* Galesti-fama pentsuarentzat,  
ori zeguen jakiña,  
baserritarra ikusten det gaur  
odoletan irakiña;  
lanikan ez du egiten eta  
betiko bizi-eziña,  
danentzako aña egingo zendun  
gogor saiatu baziña.

*Mat.:* Egia garbi esango dut nik  
emen denek siñesteko:  
baserritarrek gaur badegula  
olako frango iresteko;  
alferra nintzen esango zuenik  
emen ez nuen usteko,  
lau langilek lan in biar degu  
amabi alper azteko.

*Las.:* Zeuretzat ere ez ote dezu  
gogor saiatu bearra?  
Lan-kontu ortan zu beti izan  
baizera gizon zabarra;  
beiak mendira bialdu nairik  
onek jotzen du kitarra,  
kartzelan sartu bear litzake  
olako baserritarra.

*Mat.:* Baserritarra gogor lanian  
ai da bere baserrian:  
ganaduekin lurrean eta  
ardiekilan mendian;  
denen bitartez gu gogor ari  
girela beti lanian,  
eta au berriz pentso-aitzakiz  
otomobil ederrian.

*Las.:* Onek indarra artutzen du ni  
ixilikan egotian,  
baño ez det asko sufrituko gaur  
bertso bat ezin botian:  
baserritar au lotutzia ongi  
mesede luke katian,  
baxtar batean egon dedilla  
astuarekin batian.

**BAKARKA, GAI EMANDA**

## KALEA ALA BASERRIA?

Gabiria'n, 1968/V/18'an, kantatutako bertsoak. Ormaiztegi'ko Bizente Mujika'k artu zituan magnetofonoz.

Luzio Gabiria'k: Bi bizi-moduak ikusia zeranez, baserria ta kalea, zure iritzian nun ote bizi-bide ohea?

*Las.:* Gazte maiteak, zuen biotzak (17)  
kalerako daude bero,  
aseran gauza politak asko  
ikusitzen dira gero;  
an e larrosik arantzik gabe  
Lasarte'k ez du espero,  
danian ongi bizi liteke  
dirua izan ezkerro.

Nik diotana ongi leikela  
diru pixkat izanikan,  
mendian ere gauza orrekin  
ez da falta zer janikan;  
gaurko gazteak bizi nai dute  
kale aldera joanikan,  
baño ez pentsa an ere danak  
zoriontsu diranikan.

Biak ikusi izan ditut nik  
basarria ta kalea,  
saiatuko naiz nola naizen ni  
au erabaki zalea;  
azkenerako esan bear du  
emen bakoitzak berea:  
aize artuaz bizi izateko  
baserria da ohea.

## SENAR MOZKORRARI

Zumarraga'ko Aginaga'n, 1968/XI/17'-an, kantatutako bertsoak. Ormaiztegi'ko Bizente Mujika'k artu zituan magneto-fonoz.

Luzio Gabiria'k: Zu, Lasarte, emakume bat zera, ta gizon mozkor batekin ez-konduta zaude. Iru bertso kantatu bear dizkiozu zure gizon gaizto orri.

Ondo gaudela politak dira  
fameli bateko bromak, (18)  
amaika bider emakumeak  
sufritzen gaude egonak;  
buru onikan ez du izaten  
mozkortutzen dan gizonak,  
gero askotan pagatutzen du  
arren menpean dagonak.

Gizon-gisara dabillenan  
egiten digu mesere,  
ardoz berdintzen ez baldin bada  
etxian ez da ezere;  
zorigaiztoan ni egin nitzan  
gizon mozkorraren jabe,  
amaika paliz artua nago  
kulpa aundirikan gabe.

Gazte denboran or ibili zan  
atzetik ezin segirik,  
neuk ere ainbat maite nuen da  
ez nion kentzen begirik;  
jornal guziak zurrutan urtu,  
ez du ekartzen ogirik,  
arren andreak ez du izango  
bizkarrekuen premirik.

## SAGARRA

Añorga'n, 1969/VII/18'an, kantatutako bertsoak.

Jose Maria Aranalde'k: Iru bertso gai onekin: sagarra.

*Las.:* Anai-arrebak, eman nai ditut (19)  
sagastien abixuak,  
ongi pentsatzen jarri ezkerro  
dira gauza prezisuak:  
txoriak ere ain gogozkoak  
zituzten sagar goxuak,  
piñua janez eztira bizi  
txoriak eta xoxuak.

Ez derizkiot sagar berriak  
sortuko diradenikan,  
iñon ez degu oraiñ entzuten  
oien aurrerapenikan;  
guk ez genduen sagasti onak  
ez beste goxamenikan,  
ia galdutzen ikusten dira,  
ez daukat beste penikan.



Arbola, berriz, zeorrekin dauka  
jendiak milla enpeñu,  
gai ontan zerbait itzegiteko  
batek egin dit len kiñu;  
baserritarra, mendi guziak  
estali dituzu piñu,  
obe zenduen lege zarrean  
sagasti jarri baziñu.

## IZERDIA

Ernani'n, *Cine Irazusta'n*, 1969/VIII/  
9'an, kantatutako bertsoak.

Jose Maria Aranalde'k: Iru bertso:  
izerdia.

*Las.:* Izerdia det nere gaia ta (13)  
ni ez nijua pikardiz,  
len bezelaxe bera ateratzen  
saiatu nai nuke berriz;  
bustitzen naiz ni ainbat alditan,  
esaten dizutet egiz,  
famelirako ogi pixka bat  
irabazten det izerdiz.

Nik izerditan urte batzuek  
ditut emen eramanak,  
nekea gerorako nola utzi  
zuten aita eta amak;  
dakizutena, emen kejatzen  
gaitu geiegiko lanak,  
obetuago bizi gindezke  
egingo bagendu danak.

Zenbat izerdi atera detan  
ez nezake esan mingañez,  
ala naita're itzegiteko  
ez nago sasoi bikañez;  
dakizutena, ni bizitzen naiz  
lana gogotik egiñez,  
Jaunak zerua emango al dit  
izerdi oien ordañez!

## XENPELAR

Donostia'n, Xalbadorren omenaldian, 1969/IX/21'an, *Cine Astoria*'n kantatutako bertsoak.

Basarrik: Xenpelar-urtea ospatzen degu aurten. Eun urte bizion artetik aldegin zula. Gazterik eraman zun Jaunak. Bañan lan asko ta lan onak eginda itz neurtuz. Aitatu ta goraldtu zaiguzu Xenpelar zana bi bertsoan, nai dezun doñua erabiliz.

(20)

*Las.:* Xenpelar maite gai arturikan  
Lasarte'k nai luke mintza,  
aita juanda gu umezurtzak  
gaur arrastaka gabiltza;  
nunbait lurretik entzuna zuen  
berak Jaungoikoan itza,  
gaur obe zuten bertsolariak  
bizirik egon balitza.

Xenpelar maite, siñistu zazu  
zuri begira nagola,  
lurretik zerura kantatu nai  
al baldin badet iñola;  
gu gera adar kaxkar batzuek,  
zu ziñan gure arbola,  
naiz oraiñ egun urte ill arren  
bizi da zure odola.

1

Musical score for exercise 1, consisting of four staves of music. The first staff is in treble clef, and the remaining three are in bass clef. The time signature is 5/8, and the key signature has one flat (B-flat). The music features a complex rhythmic pattern with eighth and sixteenth notes, including triplets and slurs. The piece concludes with a double bar line.

2

Musical score for exercise 2, consisting of four staves of music. The first staff is in treble clef, and the remaining three are in bass clef. The time signature is 2/4, and the key signature has one sharp (F-sharp). The music features a complex rhythmic pattern with eighth and sixteenth notes, including triplets and slurs. The piece concludes with a double bar line.

3



4



5



6






7




8





11



12







15



16



17



18






## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I.
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan.
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren.
9. B. Iraola: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat.
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: Malentxo alargun!
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak.
21. P. Larzabal: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. F. Imaz: Bertso guziak.
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.<sup>a</sup> Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. B. A. Mogel: Ipui onak.
29. T. Alzaga: Burruntziya.
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzen.



32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverriá*: Neronek tirako nizkin.
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. *Bertsolari-txapelketa (1-I-1965)*.
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsolaria.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*.
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.

84. *M. Matxain*: Uste gabean.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. *I. Alkain* — *A. Zavala*: Alkain aita-emeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak.
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-xorta.



AUSPOA  
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA